

*Unesco-ren Albistaria*.—Munduari buruz leiho irekia. 1984 Otsaila. XXXVII. urtea.

Eusko Jaurlaritzaren babespean HABE Alfabetatze Sailaren eskutik datorren aldizkari berria dugu. Duela hogetahamazazpi urte sortua bazen ere, berria da euskararentzat. Gure hizkuntzan lehen aldiz egiten denez.

28 hizkuntzatan egiten zen oraintsurarte, lehen orrian dionez, eta euskarazkoak 30.a egiten omen du. Hala agertu ere otsailaren 15ean gaingiroki ezik handikiro aurkeztu zen lehen ale hau Maria Kristina Ostatuan. Han bertan azaldu zen hasierako historia. Baina bada aipatu ez zen beste historia bat ere, prehistoria ez dena. Nori berea ematerakoan kontutan hartzekoa. *Unesco-ren Korreoa* (eta ez bildurtu *korreo* erabiltzeaz giputz-betterriarrak *Korrika* noranahiko hedatu digutenean) euskaraz argitaratze asmoa Euskaltzaindiaren Jagon sailetik sortu zen eta Kultur Sailari eskaini.

Asmoa aspaldikoa zen, egia esan. Trantsizio garaiko Kultur Kontseilukoek zenbait urrats eman ere bai, baina ondokoek baztertu zuten eta proiektua lo egon da J. M. Velez de Mendizabali eskaintzeko aukera etorri arte.

Dena dela, hara hor euskaraz kaleratua hainbeste opa zaion aldizkaria.

Aldizkari honek, gehienetan lan monografikoak ematen dituenez, zenbaki hau analfabetizmoari eskainia da, honako edukinez: «Inperatibo morala», Amadou-Mahtar M'Bow; «Analfabetakuntza eta garapena: prozesu bakar bat», Marcel de Clark; «Kartilatik telebistara», Adame Quane; «Alfabetakuntzaren ekonomia politikoa», Herbert Gintis; «Munduko egoera», txostena; «Laugarren mundua. Alfabetoak», Ali Hamadache; «Inmigratuak, bi aldiz deserroturik», Sonia Abadir Ramzi; «Mundua eta letrak», Paulo Freire; «Unesco eta alfabetismoaren aurkako burruka», txostena; «Alfabetatze sariak 1983», berriak.

Gure kulturgintza eta euskara suspertzen laguntzeko aldizkari egokia iduritzen zaigu. *Unesco-ren Albistariak* abiada hartu du eta ibiliaz bere bidea egingen du.